



Iturria: *Au, ori ta bestia*, Echeita'tar Joseba Imanol. Florentino Elosu, 1913.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxeitaAu.htm>

## **AU, ORI TA BESTIA**

**Juan Manuel Etxeita**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Etxeita'tar Joseba Imanol

## **AU, ORI TA BESTIA**

NEURTITZAK

DURANGON  
Florentino Elosu'ren etxean  
1913



## UARRA

Aspaldijon egin dodazan neurtitzak, argitaratubak eta argitaratu ez tiranak, batu dodaz idazti onetan.

Onetariko idazti asko dagoz neurtitz ederrakaz. Onegaz bat geyago ixango dira; ta guztijetarik makalena ixan arren, zerbait geituko da euzkeraz irakurtia; bada, euzkaldun asko dira neurtitz zaliak.

Euzkerazko irakurgeti asko biar dira, makurtuta dagan euzkeriari buruba jaso erasoteko, ta egin dagigun alegiña arlo orretan.

Agur irakurlia.

Mundaka'n 1912'g. Urrilla'ren 20-an.

Etxeita'tar Joseba Imanol

## ELIXEA

*Simon*

Ixerdi asko darijozula,  
Euri jausialian,  
Mendirik mendi, zek zakaz Jule,  
Olako naibagepian?  
Odai baltzeran bildurgarriak,  
Dakuztaz zeru guztian,  
Uste dot bada zabiltzazala,  
Osasunaren kaltian.

*Jule*

Lupetzak ziar, aldapan gora,  
Nua ni elixaldera,  
Agerraldi bat, uste dot egin,  
Jaungoikuaren etxera.  
Makur makurrik, apaltasunaz,  
Eskarijak egitera,  
Ta bijotzaren gogorkerijak  
Onela samurtutera.

Jaungoikuaren jauregi eder,  
Bijotzen samurgarrija,  
Zerutarrak zein deunge ta zital,  
Guztijen makurtegija.  
Darakuzkuzan ikasbidiak,  
Ondu dabe gixadija,  
Ixan dagigun zorijontzuba,  
Emeko bixialdi ja.

O Elixea!, beti zara zu,  
Bijotzen bakegillia  
Berbaldijetan darakuzkuzu  
Zerubetara bidia;  
Eta ganera, eskarijakaz,  
Yatorku gogo betia



Elixearen adibidetik  
Ez inoiz aldentutia.

Zorigaiztoko jazoerakaz  
Bildurturik nagonian;  
Atsekabiak minberatuta  
Bijotza daukadanian;  
Eliz-bidia, Simon, artzen dot  
Goiz eta bazkal ostian,  
Eta elixan geldituten yat  
Bijotza bake-bakian.

*Simon*

Ori bai dala ekandu ona,  
Egite onbidetzuba,  
Emen bakia billatuteko,  
Eta geroko zeruba.  
Jarraitu Jule bideorretan,  
Elixako aginduba,  
Eman dagixun bixialdijan  
Jaungoikok bere eskuba.

## ESKEKUA

Egunabarrez asten naz beti,  
Aterik ate lanian,  
Jo batera ta jarrai bestera,  
Zerbait billatzen eskian.  
Ogi ta arto ataltxu batzuk  
Batzen dodaz ekiñian,  
Baña diruba nekez ta gitxi  
Ikusten dot zakelian.

Soñeko zatar puzkatubakaz  
Egunaz eta gabian,  
Ostatubetan, Jainkua lagun!  
Esaten deuste atian.  
Eta aterpe berogarri bat  
Billatzen eztodanian,  
Otzez dardarka, guztiz neketzu  
Lo egiten dot *kalian*.

Mendijak gora, basuak bera,  
Bide zior zikiñian,  
Bijotzillagaz, jarraituten dot,  
Gelditu barik eskian.  
Urdalla utzik, anak indarga,  
Beruan eta otzian  
Atsekabiak, ugari dodaz,  
Gorputz atsedean bagian.

Errukor gitxi agertzen dira  
Erri ta baserrijetan,  
Eskekuari lagundutia  
Aztu da ekandubetan.  
Urrikerija beti aldian  
Ibilte neketzubetan,  
Negarrik asko egin biar da  
Irabasbide onetan.



*Limosnatxu* bat!, deika ta deika,  
 Diardut egun guztijan,  
 Gose askogaz, guztiz indarga,  
 Jausteko bildurgarrijan.  
 Edurrak eta osin leitubak,  
 Ixaten diran aldijan,  
 Oba litzake, eskeko baño,  
 Bakian egon obijan.

Jaungoiko lastan errukitzuba,  
 Dana egin al dozuna,  
 Errukituta biraldu dazu,  
 Lenbailen laguntasuna.  
 Beti diardut otoi egiten,  
 Lortuteko osasuna,  
 Eta ganera, *merezi* badot  
 Betor zorijontasuna.

## GAZTETASUNA

Txorijak legez ariña dogu  
 Gaztetan ibilketia,  
 Gelditu baga igaroten da,  
 Jolasten egun guztia.  
 Itxasbaster ta mendirik mendi,  
 Urrengo errekartia,  
 Olako asko, eta ganera,  
 Pelotan jokaturia.

—Nun ibilli az, ene semetxo  
 Goixetik oraiñartian?  
 —Karramaruak arrapatuten,  
 Amatxo itxasertzian.  
 —Or dakastazak galtza barrenak  
 Kresal ta ondar nastian,  
 Eta orrela jolastuten az  
 Beti galbide artian.

—Soso eder bat abes egiten  
 Egon da sasi artian  
 Ariztegitik mendi ganera  
 Jarraitzen daben bidian.  
 Uste ixan dot egongo dala  
 Umiakandik urrian  
 Bost sosokume idoro dodaz  
 Abija sendo batian.

Aratxuago, ota moltzo bat,  
 Txindorra ota ganian,  
 Abeslari ta guztiz alaitzu,  
 Pozez dagonen antzian.  
 Bere abija, umetxu bigaz,  
 Dago an ota tartian,  
 Orra amatxu zorijonian,  
 Egon naz arratzaldian.



—Jolastutia, beste amesik,  
Eztok ik eure lanetan,  
Ikastetxia ta ikastiak,  
Bastertzen dozak benetan.  
Ene semetxo, asko biar dok  
Ikasi adin orretan,  
Ixañ aitian askojakiña  
Ludiko arazuetañ.

—Ama lastana, baketu zaite,  
Dantzutaz zure egijak,  
Ikastetxian egiten dodaz  
Gogotzu ikastaldijak.  
Gaztetasunak eruan arren,  
Aztertzen alde guztijak,  
Goguan dodaz zure agindu  
Guztiz atsegingarrijak.

## ZARTZARUA

### *Aurele*

Gaztiak jantzan dabiltz,  
Zelai zabalían,  
Tanbolin jotzallía,  
Dago ekiñían.  
Zegaitik guk egin ez,  
Gogaldi onían,  
Egiten gendubana,  
Gante giñíanian?

### *Bartolo*

Larogetabat urte,  
Sorbalda ganían,  
Daruazuz Aurele,  
Emen zerupían.  
Jantzan nai dozu egin,  
Zelai zabalían,  
Arpegi tximurtubaz,  
Zartzako nekían?

### *Aurele*

Arpegi tximurtuba,  
Galbarra burubán,  
Lau ortz bakarrik dodaz,  
Nik neure abuan.  
Baña Bartolo, sendo  
Garriz beraguan,  
Ankak neuriak dodaz,  
Jantza ta aurrezkuban.

Amaika jantzalditan  
Ixañ ziñan lagun,  
Beti txorija legez,  
Saltari ta bigun!  
Bijok alkarren adi,  
Jolasten edonun,



Azkenez ez kondubak,  
Eta zorijondun.

*Bartolo*

Ai! Zein galanta zīñan  
Aurele orduban!  
O! Zein tayu itzala  
Orain zartzaruan!  
Zeuri begiratubaz,  
Zagozan tayuban,  
Zerbait minberatzen yat,  
Bijou neketuban.

*Aurele*

Eta nun da Bartolo,  
Zure irudija,  
Morrosko ederra ta,  
Aurrezkularija?  
Bijok agiri dogu,  
Irudi barrija,  
O! Zein atsekabia,  
Zartzaro-aldija!

## ARITZ GOGUANGARRIJA

*(«Jose txo»n argitaratuak)*

Nai dala osasunez,  
Zein gexo txarretan,  
Naibagez ondaturik,  
Zein atsegiñetan,  
Legorrian lez bardin,  
Itxas zabaletan,  
Eguraldi onakaz,  
Baita ekaitzetan,  
Bakian gagozala,  
Zein guda lanetan,  
Geure erri maitian,  
Zein atzerrietan,  
Lurbira onetako,  
Baster guztijetan,  
Aritz eder bat dago,  
Euskel bijotzetan.

Zara ta izango zara,  
Zu zorijonian,  
Gozagarri lastana,  
Euskaldun lurrian,  
Adarrak luzeturik,  
Lerden ta bakian,  
Lege kutun bat zeunkan,  
Eskur bakoitzian;  
Poz-pozik bixi nintzan,  
Zure legepian,  
Neure atsegiñetan,  
Zein atsekabian;  
Lurperatu bagarik  
Naguan artian,  
Beti eukiko zaitut,  
Neure bijotzian.



Zugandik arturiko,  
 Landara ederrak,  
 Igaro dabez orain,  
 Itxaso zabalak.  
 Eta Amerikan  
 Jarririk sustarrak,  
 Gora duaz aringo  
 Zugaztxu lerdanak.  
 Guztiz zaitubez maite,  
 Beti euzkaldunak,  
 Euren atsegingarri  
 Ta guztiz kutunak.  
 Zabal dira Ludijan  
 Landaren eskurak  
 Beti gomutagarri  
 Eta betiraurak.

## MENDITARRA

Idijak bustarturik,  
 Darue burdija,  
 Aitz tontorraz dago,  
 Burpide guztija;  
 Ganera, guztiz urrun,  
 Nire ariztija,  
 Au bai dala benetan  
 Lan nekegarrija!  
 Aida! idi ederrak,  
 Emon izerdija,  
 Laster artukozube,  
 Atsedena-aldija.  
 Ija igaro dogu,  
 Biderik erdija,  
 Ariztijan daukagu,  
 Larra ugarija,  
 Eta errekatxuko,  
 Ur garbi-garbi,  
 Neke onen ganetik,  
 Atsegingarrija.

Aizkora zorrotzagaz  
 Ebagi adarrak,  
 Eta jarri burdijan,  
 Egur ta orbelak.  
 Neguban egiteko  
 Subak eta garrak,  
 Eta ibituteko  
 Orzaren indarrak,  
 Beteten diranian  
 Edurrez basterrak,  
 Eta dagozania  
 Eguraldi txarrak.  
 Inurriren antzera,  
 Dir menditarrak,





Aurretijaz egiten  
Gerorako lanak,  
Neguban dira maite  
Udako biarrak.

Orain bedar ebaten  
Gero atxurketan  
Azpigarriak eta  
Zaztegi lanetan.  
Ekin gari-jotia  
Gero araketan  
Batu ezer badago  
Zugatz azpijetan  
Abelgorriak zaindu  
Euren ordubetan  
Eta beti onda  
Lan neketzubetan.  
Eguraldi onian,  
Zantzo ta barriak,  
Ijiji batak eta,  
Ujuju bestiak.  
Beti abes egiten,  
Abesti maitiak,  
Alaitasun onian,  
Zar eta gaztiak.  
Larretan abere, ta  
Pozez artaldiak.

Eguraldi txarrakaz  
Geituta nekiak,  
Zikiñak eta laban  
Mendiko bidiak.  
Etxe-barruban geldi  
Abere guztiak,  
Idi, bei ta ollo  
Eta artaldiak,  
Menditar gaixuentzat,  
Zein atsekabiak!

## JOSETXO ITXASTARRARI

*(«Jose txo»n)*

Ekin Jose txo lanetan,  
Ebagi sendo bedarra,  
Bene-benetan,  
Biar orretan,  
Eztirudik itxastarra.

Basoratu artaldia  
Eguneroko goixetan,  
Artzain bat legez  
Eu abil eurez  
Baserritarren lanetan.

Ardijak itxi ta gero,  
Mokillak joten solora,  
Mokillak jota  
Bazkaldu eta  
Orbelak batzen basora.

Noizik bein aldenduten az,  
Zugatzen kerispetara,  
Etzanta bian  
Bedar ganian  
Dakik egoten erara.

Itxasuetan eztagoz  
Emeko mokil-jotiak,  
Baña bai asko  
Negargarrizko  
Galbide ta naibagiak.



## ETXERORDUBAN BASORA

Jai-alaya da  
 Gaur Basoganen,  
 Dantzaketako  
   Eguna,  
 Guazan eta,  
 Dantzatu daigun,  
 Ekandubetan  
   Doguna.

Alkardantzarik  
 Eztogu biar  
 Ez inoiz galdu  
   Sentzuna,  
 Billatu beti  
 Jai-alayetan  
 Onbiderako  
   laguna.

Onbiderako  
 Lagun zintzua  
 Esan dok biar  
   Dogula?  
 Baita biar da  
 Jolasaldijan,  
 Egunak lagun  
   Daigula.

Belu jua ta  
 Belu etorri  
 Etxeratzeko  
   Illuna,  
 Ai! eztok ori  
 Onbiderako,  
 Jarraitu biar  
   Doguna.

Gau illunian  
 Bide zigorrak,  
 Etxeratzian  
   Jarraitu,  
 Sasi arantzak  
 Geiztuak dozak,  
 Sarritan yubek  
   Zauritu.

Olluak legez,  
 Egun argitan,  
 Jolasaldijan  
   Igitu,  
 Baña, illuntze  
 Itzaltzubagaz,  
 Etxian beti  
   Aurkitu.

Neska-mutillak  
 Eztaukazube  
 Otso gaiztuen  
   Bildurrik?  
 Eztakixube  
 Illuntasunak  
 Arerijuak  
   Dauzanik?

Arri ta sasi,  
 Lupetz sakonak,  
 Osiñak ortik-  
   Emetik;  
 O! Zein galbide  
 Bildurgarriak,  
 Illuna dagon  
   Aldetik!

Gaizbidetatik  
 Aldendutia;



Ta jarrai bide  
 Onian;  
 Orixe dago,  
 Guztiz argiro,  
 Jaungoikuaren  
 Legian.

Egin alegin  
 Bide orretan,  
 Bixi garian  
 Artian;  
 Jolasaldijak,  
 Jai-alayetan;  
 Eztira biar  
 Gabian.

Ordu onian  
 Juan biar da  
 Lan egiteko  
 Arlora;  
 Lotzagarri da,  
 Jolasa gabaz,  
 Azerijaren  
 Antzera.

Goixetik juan,  
 Eta etorri  
 Illuntzetxuan  
 Etxera;  
 Jarraitu barik,  
 Esaten dan lez,  
 Etxerorduban  
 Basora!

## ITXASUA

*(«Euskalerrriaren alde»k egindako batzaldijan,  
 bigarren sartja irabazi ebenak)*

Ludi onetan inguraturik,  
 Sortalderik sartaldera,  
 Aurkituten da osin andi bat,  
 O! zein ederra da bera!  
 Zabal ta sakon toki askotan,  
 Azal ta bedar ostera,  
 Noizbait dakuzku gora-beraka,  
 Noizbait ispillu antzera.

Kresal ur eder ustelbagea,  
 Da beti sortu zanetik,  
 Arrain lirañak, ugari ditu,  
 Alde bat eta bestetik.  
 Aldenduten dau arrantzalia,  
 Urrikerijen artetik,  
 Eta yatorku arraiña beti,  
 Osin zabal orretatik.

Bere ganian, Ludijan ziar,  
 Billatzen dira bidiak,  
 Orretarako itxasgixonak,  
 Ikasten dabez legiak.  
 Eta baketzu dagozarian,  
 Uraren gane-aldiak,  
 Atsegintzubak ixan oi dira,  
 Ibilte neke bagiak.

Baña ekaitzak bultza ezkerro,  
 Ur zabalaren ganian,  
 Arin jarten da guztiz aserre,  
 Burrukarijen antzian.  
 Mendijak lako bagak jasota,  
 Bitzez beterik tartian,



Iruntzi nairik, dagon guztija,  
Ekaitza duan bidian.

O! zein indartzu, bildurgarriak,  
Bere aserre-aldijak,  
Puzkatzen ditu, arrapatuten,  
Dituban ontzi guztijak!  
Arrañik bage itxasbasterrak,  
Neketzu arrantzaliak,  
Ixugarriak ixan oi dira,  
Agertzen diran kaltiak.

Zeinbat ontzi ta zeinbat gixadi!  
Zeinbat ondasun ederrak!  
Zeinbat olakok, jo dabez sarri,  
Itxasuaren ondarrak!  
Illobi sakon, zabal ta bigun,  
Iruztan ditu basterrak,  
Bardinbageak dira beraren,  
Arrigarrizko indarrak.

Leun eta geldi egonezkero,  
Gau illun ixarratuban,  
Ixpillu garbi alaigarrija,  
Biurtu oi da orduban.  
Ixartegija daraguzkula,  
Argiro bere barruban,  
Zoragarrizko zeru ederra,  
Agerturik inguruban.

Zein siñisgaitza beti guretzat,  
Uraren gora-beria!  
Illargijaren ibilketakaz,  
Alkarturik egotia.  
Sei ordu gorutz eta sei berutz,  
Beraren ibilketia  
Jaungoikuari yagokona da,  
Olako lan egitia.

O itxasua, osin zabala!  
Arrañez oso betia;  
Noizbait zu zara guztiz ongille,  
Noizbait errukibagia.  
Errijetatik errijetara,  
Ontzi guztijen bidia,  
Erabilteko gelditu bage,  
Ludiko salerostia.

Lurrunak gorutz, eurijak berutz,  
Osiña beti lanian,  
Eta onela jarraituten dau,  
Betirauna dan bidian.  
Ludi geyena besarteturik,  
Beruan eta otzian,  
Ikusten dogu miragarrija,  
Miragarrijen artian.



## ARRANTZALIA

(«Josetxo»n)

Egunabarrak kalara juan,  
 Jaurti amubak ondora,  
 Itxasua Ieun, ixarrak zoli,  
 Arraña betorren gora.  
 Arrantzaliak pozez egozan,  
 Begira euren arlora,  
 Goiz-eguraldi ezin obia,  
*Kala* guztiz emonkorra,  
 Zantzo ta barre, mutil maitiak!  
 Jaurti nekiak albora.

*Egunabarrak, ekarri arren,  
 Zeru ta itxaso ederrak,  
 Sarri-sarritan, egiten dira,  
 Arratzaldian negarrak.*

Legorren goitik agertuten zan,  
 Oiz mendiko bizkarra,  
 Eguzki bero, odairik baga,  
 Guztizko zeru ederra.  
 Tira ta tira, beti etorren  
 Arraña gora ta gora,  
 Itxastxorijak *kanpo-aldetik*,  
 Etosan arin *kalara*,  
 Albista txarrik ezpaekarren  
 Ziur zan arrain-sundara.

*Egunabarrak, ekarri arren...*

Arratzaldian, ordubijetan,  
 Lañua euken mendijak,  
 Sortalde gora, ta guztiz illun  
 Etozan arin odayak.

Gerotxuago ikusi ziran,  
 Aixeta itxaso zurijak,  
 Burriketakaz aldendu ziran  
 Arrantzaliak guztijak,  
 Albista txarra eruan eben,  
 Kalaratubaz txorijak.

*Egunabarrak, ekarri arren...*

Biderdi oso egin orduko,  
 Illundu ziran basterrak,  
 Burriketak be urratu biar,  
 Aixeta gogorren indarrak.  
 Mendijak lako baga andijak,  
 Ausirik euren gangarrak,  
 Joten ebezan txalupak eta,  
 Baita gixonen bizkarrak,  
 Itxasaldeko erri askotan,  
 Baziran zoli negarrak.

*Egunabarrak, ekarri arren...*

Ekaitz onegaz ikaraturik  
 Itxasaldian ebiltzan  
 Estutasunez guztiz artega  
 Zer gertatuten ete zan.  
 Euri landurrak, arrantzaliak,  
 Oso estaldu ebazan  
 Arrigarrizko bildurtasunez  
 Negar egiten egozan  
 Eskari asko Jaungoikuari  
 Egiñaz euren Elixan.

*Egunabarrak, ekarri arren...*

Arrantzalien bixibidia  
 Olan da beti gixonak  
 Neke askogaz, artuten dabez  
 Galbide-aldi gogorrak.



Itxaso ta aixe aserriakaz  
 Errukigarrizko lanak  
 Sarri-sarritan jazoten yakez  
 Irudikera okerrak  
 Zeru ederraz, goixian pozik  
 Arratzaldian negarrak.

## MARTIN ETA MARI-JESUS

*(«Jose txo»n)*

Neskatilla galanta,  
 Lanian sendua,  
 Demiku baserriko,  
 Etxaguntzakua.  
 Beti zan Mari-Jesus,  
 Guztizko zintzua,  
 Mutillen alaigarri  
 Ta bijotzekua.

*Nok irakatzi deitsu atontzen  
 Buruko zapija,  
 Gorantza zuri, amantal urdin,  
 Ta gona gorrija?  
 Ule txortakaz apainduriko,  
 Ai zoragarrija!  
 Mutil askoren bijotz samurrak  
 Eruakarrija.*

Ezkontzeko mutillik  
 Agertzen zanian,  
 Mari-Jesus eguan  
 Beti ezetzan.  
 Kutuna ixan arren  
 Mutillen artian  
 Etzan iñor sartuten  
 Bere bijotzian.

*Nok irakatzi deitsu atontzen...*

Baila, jua urtiak,  
 Urtiak etorri,  
 Zerbait jazoten yakan  
 Mari-Jesuseri.



Bere bijotz samurra,  
Argi zan agiri,  
Bijotzetik nai eutsan,  
Gogoz Martiñeri.

*Nok irakatzi deitsu atontzen...*

Ezkondu ziran bijak,  
Lastan ixateko,  
Zerura eskarijak,  
Sarri egiteko.  
Atsegin zorijonak,  
Eurakanduteko,  
Alkarri lagunduta,  
Pozez bixiteko.

*Nok irakatzi deitsu atontzen...*

## MATI

*(«Jose txo»n)*

Mati dozu zuk ixena; baña,  
Txotxo-arto ezixena,  
Ondo jantzita apainduriko,  
Iruder eta lerdena.  
Andikerijaz uste dozu zuk,  
Beste askok eztabena,  
Emastegeitzat lortukozula,  
Emeko aberatzena.

Diruduna ta ontzi-buruba  
Zein bixibide oberik!  
Baña diñue, nun ete dagon,  
Zulako andigurarrik.  
Eguneroko aserriakaz,  
Mutil irritubagorik,  
Eta etxian eztabe gura,  
Bakia baño besterik.

Eladitxo zan lenengo aldiz,  
Zure begiko kutuna,  
Eguraztuten ortik-emetik,  
Eguneroko laguna.  
Zeure goguan sartuta zeunkan  
A polit begibaltzduna,  
Beti gomutan noiz elduko zan  
Ezkonduteko eguna.

Iragarririk Eladetxori,  
Matigaz ezkondutia,  
Arin bai arin, erantzun eban,  
Etzala bere ustia.  
Eskerrak emon dayubezala,  
Gurari onen ordia,



Bere gogora etzala eldu,  
Ondiño senar-artzia.

Ostera Mati maite zenduban  
Neska Kostantze artzako,  
Ule gorritzta, begi zurijak  
Iruderra kalerako.  
Gorputz andiko, arpegi eder,  
Apaintzalia zalako,  
Antxiñatxotik esaten eutsen,  
Kostantze andigurako.

Kostanze oni eruan eutsen,  
Albista ori etxera,  
Erantzun eban, mutil aregaz,  
Bera ezkondu? Bai zera!  
Geixtua dala entzutiagaz,  
Biurtu zala bestera,  
Eta ganera, bera eztala,  
Bigarren maiko *platera*.

Aure ixan zan Txotxo-arroren  
Goguan irugarrena,  
Andi ez txiki, argal ez lodi,  
Neskatillatxo lerdena.  
Nekezalia ez aberatza,  
Josten ondo ekijena,  
Zein baterako, zein besterako,  
Ixañ leikian onena.

Iragarririk Aureri bere,  
Matiren gogo betia,  
Erantzun eban, ez ebala nai,  
Aregaz ezkonduia.  
Aserrekor ta geixtua zala,  
Eguala entzutia,  
Naste orretan ibilli baño,  
Obia zala bakia.

## ELADETXORI

(«*Josetxo»n*)

Izarrak zoli, zeruba garbi,  
Illargi argi-argija,  
Nun zagoz neska begibaltz eder,  
Guztiz errukigarrija,  
Jaurtixu urrun alde batera,  
Zeure naibage guztija,  
Zarialako, bai Eladitxo,  
Danoren maitagarrija.

Guramen baga, nai eztozula,  
Ezkondu eragitia,  
Itzumendiko langillena da,  
Olako burubidia.  
Sentzun bagako egite orrek,  
Beti dakar naibagia,  
Naibagiakaz bixiezkeru,  
Urrengo dator lurpia.

Ai Eladetxol zeinbat zaplada!  
Zeinbat neke ta atsekabe!  
Etziñiala uste ixan dabe,  
Zeure bijotzaren jaube.  
Baña, nai artu nekaltasunak,  
Nai dala beste naibage,  
Zure bijotza zeuria dala,  
Argiro ikusi dabe.

Deunge bat legez, jaurti zaitube  
*Kanpora* zeure etxetik,  
Erdu Elade geure etxera!  
Diñue ortik-emetik.  
Erdu geurera! entzuten dozu,  
Edozein *kale-artetik*,





Maite zaituguz emen guztijok,  
Bijotzen barru-barrutik.

Zerubetatik etorri yatzu,  
Elade gogoz indarra,  
Sendatasunaz amatateko,  
Arerijuen txingarra.  
Baita alantxe, artu ezatxun,  
Nai eztozula senarra,  
Eta onela, ibitu daixun,  
Eguneroko negarra.

Zeure senartzat, artuko dozu,  
Zeuk daukazuna goguan,  
Zara Elade, esangozuna,  
Ezkonduteko orduan;  
Auxe gura dot neure senartzat,  
Auxe dot neure buruan,  
Negar zein barre, senar onegaz,  
Egin gura dot *munduan*.

## JOSETXORI

(«*Josetxo»n*)

Agertu yaku Montebideon  
Josetxo geure lastana,  
Onegiñetan, Ludi onetan,  
Iñoiz aspertu eztana.  
Elizkarajak il zan ustiaz,  
Noizbait egin yakazana  
Bixibidian estu ta larri,  
Sarri ibilli oi dana.

Ixar eder bat egon biar dau  
Josetxo beti zainduten,  
Naibagietan, galbidietan  
Bere ardurak artuten.  
Erijotzia bere aurrian  
Sarri euki dau deituten,  
Barre egiñaz ikusi oi da  
Garaitzu beti urteten.

Elizkarajak eginta gero,  
Guztijok uste genduban,  
Done-artian bixi obian  
Egongo zala zeruban.  
Bañan iltia etzan egongo  
Jaungoikuaren goguan,  
Agaitik berez, mirariz legez  
Agertu yaku *munduan*.

Elizkarajak egin zirala,  
Josetxok dakijenian,  
Jantzan jarrita irribarrezka,  
Esan lei bere artian;  
Emendik gora, zerubetara,  
Nabe biraldu etxian,



Laster oster, esango dabe,  
Jayo da bigarrenian.

Maitetxoaren jazoerakaz  
Jarri leike arriturik,  
Jakiñezkero, itzal ta ero,  
Gelditu zala galdurik.  
Gero adimen argi-argijaz  
Jarri zan pozez beterik,  
Josetxo berak biralduriko  
Albistak irakurririk.

Olako gauzak jazoten dira,  
Sarritan Ludi onetan,  
Maitetasunak, naibagedunak,  
Indarrak dabez orretan.  
Bijotz samurrez begiratuaz  
Alkarri euren lanetan,  
Zorijonian bixiko dira,  
Jaungoikuagaz baketan.

## JOSETXO TA ELADE

(«Josetxo»n)

Itxasketako bixibidian,  
Itxaski gorrotubetan,  
Estualdirik estualdira,  
Josetxo itxasuetan;  
Bijotzikara minberatubaz,  
Erijotzia berpertan,  
Sarri-sarritan aurkitu oi zan,  
Olako jazoeretan,  
Ekaitz gogorak, iruntzi nairik,  
Itxaso-arazuetan.

Errekatxuak dirudijela,  
Bijotza miñez eukijak,  
Amaika negar erijon dabe,  
Elade zure begijak!  
Elixalderutz ixaten ziran,  
Zure bide pozgarrijak,  
Eta elixan Done artian,  
Ai arek egotaldijak!  
Eskarijakaz ibituteko,  
Zeure naibage guztijak.

Kastor ta Polux, ixar bikotxak,  
Dabiltzaz beti batera,  
Zubek bijok be, orain zuaze,  
Aren ixarren antzera,  
Ezkonduriko kutun-kutunak,  
Alkarregaz bixitera,  
Urte askotan igaroriko,  
Naibagiak ibitzera;  
Atsekabiak egin dozubez,  
Aldatu zorijonera.



Zeinbat galbide, zeinbat mingarri,  
 Josetxok alde batetik!  
 Zeinbat naibage ta atsekabe,  
 Eladek beste aldetik!  
 Neke askodun maitetasunak,  
 Alde bat eta bestetik.  
 Azkenerako sendagarrija,  
 Artu dozube zerutik,  
 Onbidetzuben atsegin-sari,  
 Jaungoikuaren eskutik.

## LUDIJA

Ixarloka onetan  
 Itzartu begijak,  
 Eta ikusikoguz.  
 Zelai ta mendijak,  
 Euretan eregita  
 Erri ta urijak,  
 Eta onen ganera  
 Ainbat baserrijak.  
 Urak biar badira  
 Dagoz iturriak,  
 Baita toki askotan  
 Erreka ta ibayak.  
 Solo ta larra barriz  
 Guztiz ugarijak,  
 Eta toki askotan  
 Zugazti andijak.  
 Basuetatik datoz  
 Egur sugarriak,  
 Bedar, ira ta ota  
 Ganera sasijak.  
 Ortik eta emetik  
 Abere andijak,  
 Eta tayu askoko  
 Pizti ta txorijak.  
 Itxasalde guztijan  
 Arrain ugarijak  
 Margo bardingak eta  
 Andi ta txikijak.

Lurrikara gogorrak,  
 Eta garmendijak,  
 Onexek bai dirala  
 Ikaragarriak!  
 Erri askorentzako  
 Ondamengarriak,



Sari entzuten dira  
 Olako barrijak,  
 Eta ikusten doguz  
 Kalte mingarrijak,  
 Etxe asko puzkatu  
 Birrindu mendijak,  
 Jazoera onekaz  
 Ondatu sendijak;  
 Lan onek darabiltzaz  
 Sarritan Ludijak.

Itxasuetan bere  
 Aldatze andijak  
 Bake-egunak eta  
 Aserre aldijak.

Eta zertzuk dituguz  
 Guk alaigarrijak?  
 Elixetan egiten  
 Diran eskarrijak,  
 Maitiagaz baketzu  
 Juan-etorrijak,  
 Jateketa eztitzu  
 Atsedengarrijak,  
 Neketuta egiten  
 Diran loaldijak,  
 Ezkondu ta geroko  
 Ibilte alayak,  
 Andik, ortik, emetik,  
 Ikusten errijak.

Ludijan ibilteko  
 Burdi, zalpurdijak,  
 Burtarin ta suburdi,  
 Ta itxasontzijak,  
 Eta orren ganera,  
 Goiko egazkijak.

Beruak eta otzak  
 Ludiren ganian,  
 Leyak ardatz-ertzetan,  
 Beruak tartian.  
 Neguba alde baten,  
 Udia bestian,  
 Udazken, udabari,  
 Euren bitartian  
 Otzik ez bero bako  
 Urtaro maitian.  
 Olan guaz aurrera  
 Betiko lanian,  
 Eta jarraitukogu  
 Lurpetu artian,  
 Jainkok ixentariako  
 Bide zuzenian.

Gixadijetan dagoz  
 Bardingak diranak  
 Zuri, ori, baltz eta,  
 Asko baltzeranak.  
 Laburkotiak batzuk,  
 Bestiak luzangak,  
 Emendik bixartzubak,  
 Ortik bixarbagak;  
 Zur-luzedunak eta,  
 Ainbat zurzapalak,  
 Batzuk guztiz baketzu,  
 Bestiak okerrak,  
 Nunbait zorijonian,  
 Baita eztabadak;  
 Aurrez arpegi-argi,  
 Atsetik illunak;  
 Geyenok gara emon,  
 Guztiz andigurak;  
 Baña, arin juakuz,  
 Ludiko egunak.



## MAITETASUNAK

### *Bitor*

Zek zenkazan zu, beti nigana,  
Gaztiak giñianian,  
Zoluetara, mendijetara,  
Ezetan niñoyanian?  
Ai Juste, Juste!, ibilten ziñan,  
Nigandik beti urrian,  
Jakin bagarik maitetasunak,  
Oraindik zertzuk zirian.

### *Juste*

Eta zu zetan etorten ziñan,  
Sarri egun bakotxian,  
Uraren billa iturritxura,  
Ikusten ninduzunian?  
Ai Bitor, Bitor!; zek zerabiltzan,  
Orrela nire atzian,  
Adimen бага maitetasunak,  
Zer ziran jakin ezian?

### *Bitor*

Adin bateko ume gaztiak,  
Eta auzuak giñian,  
Beti gengoan jolastuteko,  
Gutzizko gogo onian.  
Ai Juste, Juste, jolas-laguna!  
Mendi andijen artian,  
Goiz ta arratzalde beti zengoan,  
Zu nire gogamenian.

### *Juste*

Eta ni Bitor, ume nintzala,  
Zu barik itzal nenguan,  
Jolastuteko, mendiratzeko,  
Zu beti nire goguan.

Orain amasei udabarrien  
Astuntasunaz buruan,  
Gaztetan legez nago ni beti,  
Poz-pozik zure onduan.

### *Bitor*

Nik barriz Juste, gau eta egun,  
Zaukadaz beti goguan,  
Maitetasunaz aldendu bage,  
Ai!, bijotzaren barruban.  
Zu zara ixar argi-argija;  
Nik dakustana munduan  
Illarte beti, bixi nai neuke  
Ludijan zeure onduan.

### *Juste*

O! Bitor, Bitor, agertu dozu,  
Maitetasuna nigana;  
Orrelaxe da niria bere,  
Oso zintzua zugana.  
Jaungoikuari eskatzen deusatz,  
Begiratzeko gugana,  
Bere gurariz ixan gaitezana,  
Batubak alkarregana.



## ARTZAÑAK

*(«Jayoterri Maitia»n)*

Egunabarraz itzartzen gara,  
Mendiratzeko ardijak,  
Ikusgarriko artaldiakaz,  
Beteten doguz mendijak.  
Ortik-emetik joten dituguz,  
Alboka-soñu zolijak,  
Eta onela ixan oi dira,  
Artzañen zorakerijak.

*Ardijak dakargue*  
*Diru zillardunak,*  
*Bildotz, ezne ta gaztai,*  
*Ugari egunak:*  
*Ardi-ule ta narru,*  
*Aragi ta azurrak,*  
*Orra zeinbat dirian,*  
*Euren ondasunak.*

Artzain guztijok, neska ta mutil,  
Aritz-tantayen azpijan,  
Jesarten gara, pozez beterik,  
Zoragarriko mendijan;  
Gogoraturik an gagozala,  
Geure asaben errijan;  
Toki oberik ezta egongo  
Ludiko legor guztijan.

*Ardijak dakargue..*

Bee... ortik eta, bee... emetik be,  
Egunabarraz batera,  
Larrara duaz ardi ederrak,  
Bedarra gogoz jatera;

Bee... ortik eta, bee... emetik be,  
Diadarrakaz ostera,  
Zoli ta pozik biurtzen dira,  
Illunabarrez etxera.

*Ardijak dakargue..*

Sarri-sarritan egon oi dira,  
Mendiko bide txarretan,  
Lupetzak eta edurrik asko,  
Neguko egun otsetan.  
Orrez nekiok daukaguzan lez,  
Betiko ekandubetan,  
Gutziz gogotzu gabiltzaz beti,  
Artzañok geure lanetan.

*Ardijak dakargue..*



## SABAS ARTZANAREN AGURRAK

*(«Jayoterrri Maitia»n)*

—Agur Ardibasoko  
Ardizain maitiak,  
Ardi ederrak eta  
Ibai ta etxiak;  
Agur Aritz-tantai ta  
Asaben bidiak,  
Erbestera narue,  
Neure naibagiak.

*—Agur ba geure bijotzetako,  
Ardizain laguna,  
Urte askotan euki daixula,  
Beti osasuna;  
Zorijonagaz biurtu zaite,  
Oso diruduna,  
Billatu gero jayoterrija,  
Ain maite dozuna.*

—Agur Ardilandako  
Alboka jotiak,  
Artzain *kanta* gozuak  
Zantzo ta barriak.  
Agur Ibaigardengo  
Ur garden garbiak;  
Zugatz ederrak eta  
Mendi-bitartiak.

*—Agur ba geure bijotzetako..*

—Agur maite dodazan  
Asaben erriak,  
Agur emen dagozan  
Ekandu garbijak;

Agur jayoterriko  
Erritar guztijak,  
Neure orain arteko  
Atsegingarriak.

*—Agur ba geure bijotzetako..*

—Agur Jule lastana,  
Nora zara jua?  
Zegaitik jarri zara,  
Gexozain *munduan?*  
Beti eukiko zaitut,  
Bijotz neketuban,  
Ikusten ezpagara,  
Ixañ bei zeruban.

*—Agur ba geure bijotzetako..*



## SABAS TA JULE

### *Sabas*

Neure bijotz-illagaz  
 Ta gorputza ikara  
 Niñoyan itzal-itzal  
 Amerikatara.  
 Naibage mingarriak  
 Zerbait ibitzera  
 Neure jayoterritik  
 Ninduben atera.

Irabasbide onaz  
 Luzaro nenguan  
 Jule beti nebala  
 Bijotz ta goguan.  
 Maitetasun zintzuak  
 Gexotu ninduan  
 Illorduko nai neban  
 Ikusi munduan.

Gexorik nenguala  
 Osategi baten  
 Neska bat nire gelan  
 Jarri zan ni zaintzen.  
 Nire begi itzalak  
 Zer eben ikusten?  
 Neure Jule lastana  
 Ardurak artuten!

Ai nor dakust nik emen!  
 Esan nebanian,  
 Artega pozen pozaz,  
 Jarri nintzarian,  
 Berak itandu eustan,  
 Errukor antzian,  
 Ezer jazoten yatan,  
 Neure gorputzian.

Eta erantzun neutsan;  
 —Baita bijotzian;  
 Ai zein atsegintzuba,  
 Gexo minberian,  
 Emen agertutia,  
 Begijen aurrian,  
 Neure Jule lastana,  
 Gexozain lanian!

### *Jule*

Nor zara zeu gixona,  
 Nungo euskalduna,  
 Bijotz samur orregaz,  
 Ni maite nozuna?  
 Autortu dazu zer dan,  
 Jazoten yatzuna,  
 Ni sendatzera nator,  
 Zeure osasuna.

### *Sabas*

Enozu ezagutzen,  
 Ai Jule kutunal  
 Ezin ziñeike neurtu,  
 Nire poztazuna.  
 Esango deutsut gogoz,  
 Jakin nai dozuna,  
 Naz Goiketxeko Sabas,  
 Ardizain laguna!

### *Jule*

Neure Jaungoiko lastan,  
 Jaun maitagarrija,  
 Au da arrigarrizko,  
 Zeure mirarija!  
 Ai Goiketxeko Sabas,  
 Errukigarrija,  
 Jaunak egin daixula,  
 Sendatu bixija.





### *Sabas*

Poztazun andijagaz,  
Ni osatu nintzan,  
Juleren ardurari,  
Bixija zor neutsan.  
Len maitetasunagaz,  
Kutuntxua bazan,  
Orain esker sutzubak,  
Emoten neutzazan.

Gura zuen bayetzaz,  
Ta lege onian,  
Alkarri laguntzeko,  
Ezkondu giñian.  
Jarraitzeko gogotzu,  
Beti onbidian,  
Bixi au igaroten,  
Maite ta bakian.

Etixeratu gara, ta  
Agur erritarrak,  
Agur jayotterriko,  
Baserri ederrak.  
Pozagaz darijoguz,  
Gogotzu negarrak,  
Agur bijotzetako  
Gurazo lastanak.

## **IXARRAK**

Ixartegijan ixarrak,  
Beterik zeru basterrak,  
Andijak eta txikijak,  
Mote askoko argijak,  
Dakuskuz guztiz ederrak.

Duaz batetik bestera,  
Sortaldetik sartaldera,  
Estaldurik egunian,  
Eta gero illunian,  
Ikusten duguz ostera.

Urrun, dira eguzkijak,  
Arrigarrizko argijak,  
Bakotxa bere tokijan,  
Ixarlokaen erdijan,  
Argi-eruakarrijak.

O! gauza miragarrijak  
Zerubetako argijak!  
Guretzat adimenian  
Ulertu ezin dirian  
Jaungoikozko mirarrijak.



## PEPANTONI TA MARTE

### *Pepantoni*

Marte, gaztai-saltzalle,  
 Goyerrin jayua,  
 Guztiz polita, eta  
 Ondo apaindua.  
 Ardibaso guztijan,  
 Beti maitatua,  
 Zara bixibidian,  
 Zorijonekua.

### *Marte*

Pepantoni, baukazu  
 Gaztairik saltzeko?

### *Pepantoni*

Bai Marte, or daukadaz,  
 Zeuri emoteko!

Abarka txapiñakaz  
 Igaro basuak  
 Baserririk baserri  
 Uda ta neguak.  
 Zoli egiten dozuz  
 Zeure arazuak  
 Gaztai salerostiak  
 Dakartzuz diruak.

## MARTE TA AGATON KORKOITZ

### *(«Jayotteri Maitia»n)*

Neska eder bat, agertuten zan,  
 Ardibasora sarritan,  
 Otar andijaz, gogo-argijaz,  
 Etxietara gaztaitan.  
 Mendirik mendi, ibilli oi zan,  
 Eguzkitan zein euritan,  
 Lerdenagorik, gazte-gurarik,  
 Etzan iñungo erritan.

Argi ta garbi ikusi oi zan,  
 Edozeingana aurkesten,  
 Bere bixijan, onde ekijan,  
 Buru zapija apaintzen.  
 Gazte-gurako arazueta,  
 Ezaban iñok bardintzen,  
 Baña bijotza, aldakor utza,  
 Etxakan iñoiz sendatzen.

Marte eritxon, gaztai-saltzalle,  
 Leunketa onen jaubia,  
 Ardibasoko, Basterretzeko,  
 Agatontxuren maitia.  
 Eskiñi eutsen bijak alkarri,  
 Alkartuteko berbia,  
 Ganera euken, alik ariñen  
 Ezkonduteko ustia.

Baña, Martetxuk, lenguzuren bat,  
 Eijeban Amerikan,  
 Bere barririk ez gomutarik,  
 Ezaban urte askotan.  
 Eta bein baten ziarduala,  
 Gaztai-saltzalle lanetan,



Lengusu ori, amalabari,  
Aurkestu yaken berpertan.

Jipijapazko kapela zuri,  
Egal zabala buruban,  
Lengusu ori ondo jantzita  
Arro ta lerden eguan.  
Marte be an zan *indijanuaz*  
Berbetan bere aibuan,  
Bijotzikara zoragarrija  
Ebala bere barruban.

Indijanuak jarraitu eban,  
Guztiz amultzu Martegaz,  
Agaitik onek siñisten eban,  
Ezkondutia beragaz.  
Agaton korkoitz aurkituten zan,  
Itxaropen osuagaz,  
Baña Martetxuk itxi nai eban,  
Ago-bete azurregaz.

Gero korkoitzek, ondo usmaurik,  
Neska orren andigurak,  
Bere artian esaten eban,  
Eztodaz jango azurrak.  
Argi dakustan bixibidiaz,  
Aldendu yataz bildurrak,  
Betetu beyoz lengusubari  
Emastegeyen ardurak.

Artu ebazan Genaretxugaz,  
Ezkonduteko asmuak,  
Autortu eben euren bayetza,  
Gogo beroz gurazuak.  
Astebetian egin ebezan,  
Eskontzeko arazuak,  
Eta lenbailen betetu ziran  
Korkoitz zintzuen goguak.

Marteren amak loba orreri,  
Bein baten eutsan autortu,  
Marte beragaz ezkondutia,  
Nai leukiala egitu.  
Onbidietan aurrerengua,  
Ezin leyola jarraitu,  
Ta neskatilla zintzuagorik  
Iñun eztala aurkitu.

Indijanuak erantzun eutsan,  
Ai ezin neike ixeko!  
Marte maite dot, biar dan legez,  
Lengusiñia dalako;  
Iruderra ta egikorra da  
Zintzotasuna badauko  
Baña emaste, senide danik,  
Eztot nik iñoiz artuko.

Ona, Marteri uts emoeutsen,  
Ames gozatzu guztijak,  
Ardibasoko sasi artetik,  
Iges eiñeutsan erbijak;  
Ezeben biar emastegeitzat,  
Len zituban maite bijak,  
Eta orduan amaitu ziran,  
Marteren andikerijak.

O Marte, Marte, apaintzalia!  
Gaztai-saltzalle len zana,  
Ardibasotik, ortik-emetik,  
Erbi bi zenbiltzazana;  
Alperrik ziran zure asmuak,  
Zure apaintzeko lana,  
Neskazar beti gelditu oi da,  
Biri jarraitzen deutsana.



## EZKONGEYAK

### *Dari*

Begi ederrok itzal-itzalik,  
Bekoki guztiz illuna,  
Zer jazoten da zugaz Dorote  
Neure auzoko laguna?

### *Dorote*

Darik eta nik agertu geuntzan,  
Alkarri maitetasuna,  
Aurrerantzian beti ixan zan,  
Niretzat kutun-kutuna;  
Baita, ganera, egurasteko,  
Eguneroko laguna.  
Orain jakin dot aldatu dala  
Beraren zintzotasuna,  
Emastegeitzat artu dabela,  
Irene begibalzduna.  
Orra zegaitik darabiltan nik  
Bekoki guztiz illuna  
Lotzageiztoko senargei orrek  
Eztauko argi sentzuna.

## AURELE

—Zer darabilizu emen Aurele,  
Mendi bitarte onetan,  
Arpegi zurbil, bijotz illagaz,  
Zeure burubaz berbetan?

—Euzkeldun bat be eztot ikusten,  
Emeko baserrijetan,  
Nora juan da bastertutera  
Maite dogula benetan?  
Oso erdaldun biurtutera,  
Guaz Euzkadi onetan,  
Gexo galgarri, guztiz okerra,  
Da on ekandubetan.  
Erderaz baño eztot entzuten,  
Bilboko inguruberan,  
Euzkeraz berba egin gura dot,  
Bixi nazan egunetan,  
Eta euzkeldun artera nua  
Aurrerantzeko lanetan.



## PAULO TA IRENE

*Paulo*

Zek zaruaz Irene,  
Nekiak artzera,  
Beko zelayetatik,  
Mendi bizkarrera?

*Irene*

Emetik nabil sarri,  
Gora eta bera,  
Igoten naz gogotzu,  
Ni mendi ganera,  
Ingurubak ekarten,  
Begijen aurrera,  
Ta euzkera garbija,  
Nunbait billatzera.

*Paulo*

Ixar bat agertu da,  
Gaur ixartegijan,  
Ixarrituten dago,  
Zeruben erdijan.  
Zer barri ete dakar?  
Zer nai Euzkadijan?

*Irene*

Ekandu onak jarri  
Egozan tokijan!

## EMASTE MAITIARI

Amalagarren urtian neban,  
Maitetasuna zugana,  
Ni nintzan keti jolastuteko,  
Billatzen zendudazana.

Ezkondutia

Alkartutia

Zer ziran enekiala.

Adimeneko illuntasunak,  
Argitu zirianian,  
Maitetasuna agertu geuntzan,  
Alkarri lege onian.

Astegun ta jai,

Zintzo ta alai,

Or-emen batzen giñian.

Maitetasunak, egiazkuak,  
Sendo zintzotasunian,  
Gu legez ondo, maitetzen zanik,  
Etzan egongo lurrian.

Buruba austen,

Gogoratuten,

Alkar ikusi ezian.

Noizbait juaten giñan alaitzu,  
Ur billa Menditurrrira,  
Illunabarrez egoten giñan,  
Ixar ederrai begira.

Maitetasunak,

Dauzan lagunak,

Ixarrak ixan oi dira.

Gogoz ta pozez eldu giñian  
Azkenez ezkondutera,



Baita jarraitu zorijonian  
Zartzaruaren urrera.

Nik uste nuan,  
Lenengo juan,  
Jaungoikuaren aurrera.

Baña Jaungoiko maite-maitiak  
Biar zenduzan zeruban.  
Alargunduta bijotzillagaz,  
Itxi ninduzun munduan;  
Ni nuanian,  
Batu artian,  
Zeugaz, zagozan lekuban.

## NESKAZAR BAT

Au da nire ixate gogaikarrija,  
Ezkongei ta neskazar neure bixija,  
Senargei barik!  
Naibagepian bakar-bakarrik,  
Jainko lastana!  
Biralduxsu Nikanor nigana,  
Ezkondutera,  
Bakartasuna aldatutera,  
Bixi gaitazan bijok batera.

Bijok juango gara ikastetxera  
...Bijok irakaslari, irakastera,  
Ekandu onak,  
Euzkeraz berbeta garbijenak;  
Euzkelerrijan,  
Asabak bixi ziran tokijan;  
Zorijonian,  
Euzkeldun eta euzko artian  
Geure Euzkadi maite-maitian.



## MARI PEPAK SEMIARI

*(«Euskal-Esnalea»n)*

Ogetazortzigarren urtian,  
Zatortaz, seme, etxera;  
Zer billatzera jua ziñian  
Gogo beroz erbestera?  
Zakelak utzik dakazuzala,  
Eskeko baten antzera  
Eta ganera, zer dirauztazu?  
Aztu dozula euzkera?

Naibagetu da nire bijotza,  
Ai seme, ori da lana!  
Emen daukazu antxina legez,  
Nik neuretzako dodana.  
Baña, zauri bat sortu deustazu,  
Osatzen errez eztana,  
Zokondoratu zendualako,  
Geure euzkera lastana.

Zure anayek eztau nai ixan,  
Iñoz erbesteratzia,  
Jayoterrija idoro eban,  
Pozez irabasbidia.  
Adiménian josita dauko,  
Zintzotasunen legia,  
Euzkelerriko ekandu onak,  
Eta euzkera maitia.

## ERBESTEKO NEGARRAK

*(«Euskal-Esnalea»n)*

Jauregi eder, gela zabalak,  
Apainduriko tokija,  
Ezta niretzat edertasuna,  
Oso atsegingarrija.  
Ingurubetan ezto ikusten,  
Jayo nintzan baserrija,  
Aitamatxuak ez ikustia,  
Gutziz da gogaikarrija.

Ez dakust emen jayotetxien,  
Aurreko ariztegija,  
Aristegijan urtetén daben,  
Iturburutxu garbija.  
Ezta ez dakust, etxe osteko,  
Okaran zugatz andija,  
Eta arako, solo ganeko  
Sagazti txit ugarija.

Adiménian aldendu bage,  
Daukat nik euzkelerrija,  
Gazte nintzala jolasten nintzan  
Lurralde maitagarrija.  
Zeu ikusteko gogoz nago, ta  
Betor arin eretija;  
Puzkatzen dago nire bijotza,  
Ai neure jayoterrija!



## EUZKERA

Beti gomutan, pozik zaukadaz,  
 Euzkera neure lastana,  
 Erritar askok, toki askotan,  
 Basterturik zaukazana.  
 Berbakuntzarik maitetubena,  
 Beti ixan biar dana,  
 Jainko maitiak Ludi onetan,  
 Lenengo sortu ebana.

Ume geyenak, andi ta txiki,  
 Ikusten dira *kalian*,  
 Berba ta berba diarduela,  
 Erderaz euren artian.  
 Onela zelan jarraitukogu,  
 Landu genduban bidian,  
 Naibageturik gogoratuten,  
 Egunaz eta gabian,  
 Ete gagozan erdalerrijan,  
 Ala Euzkadi maitian?  
 Beti bixiko nintzake pozik,  
 Anboto mendi ganian,  
 Gaizbide onek, ez ikusteko,  
 Neure begijen aurrian!

## ITXASUAN, AMERIKATIK ETXERUTZ

Ai neure bijotzeko kutuna!  
 Ai jayoterrijal  
 Urrunago ta lastanago dan  
 Ai maitagarrija!  
 Geure aitamak sortu genduzan,  
 Ai euzkel tokija  
 Zugaitik beti emongo geunke  
 Guk geure bixija!

Itxasuetan bixibidia,  
 Uraren ganian,  
 Gogorrena ta neketzubena,  
 Da gixonartian.  
 Ekaitz indartzu mingarriakaz,  
 Dagoz galbidian,  
 Eta ganera, urrikerija,  
 Euren ixatian.

Bultza ta bultza, aixe ongille,  
 Atsegingarrija,  
 Bultza ta bultza, igaroteko,  
 Itxaso guztija.  
 Aixe-oyalak, aitez beteta,  
 Aurrera ontzija!  
 Ikusi daigun, alik ariñen,  
 Geure baserrija.





## BIXI BEDI EUZKERA MAITIA

Euzkeraz entzun neban,  
Jayo nintzarian,  
Anboto mendijaren,  
Beko barrenian.  
Euzkeraz dantzut beti,  
Nik oraiñartian,  
Eta daukat sartuta,  
Neure bijotzian.

Beti dot guztiz lastan,  
Euzkera geuria;  
Nun idoro leiteke  
Berbeta obia?  
Niretzat ixaten da,  
Eztizko berbia,  
Esaten dodanian,  
Amatxu maitia!

Euzkeldunen artian,  
Berbeta gozua,  
Asabak itxiriko,  
Kutun-kutuntxua;  
Baita bijotzetako,  
Pozgarri osua,  
Esaten dogunian  
Neure lastantxua!

Euzkera ilgo dala,  
Uste dodanian,  
Zer da jazoten dana  
Nire bijotzian?  
Ikara ta minbera,  
Arnasa artzian,  
Gutziz makalduten naz  
Ni osasunian.

Amatxuk esan eustan,  
Ilgo zan aurrian,  
Agur alaba lastan,  
Laster naz lurpian!  
Euzkeraz otoi egin  
Nire lurganian,  
Euzkeraz nai dot entzun  
ilda nagonian.

Ama! —erantzun neutzan  
—Zure lurganian  
Belauniko jarrita,  
Otoi egitian;  
Euzkeraz diardukot,  
Goiz ta arratzaldian,  
Bijok zagozelako,  
Nire bijotzian.

Euzkeraz nai dot ekin  
Pozez ta bakian,  
Neure naibagietan,  
Zein zorijonian.  
Bijotza sendatzeko,  
Miñez dagonian,  
Iraun bedi betiko  
Euzkadi maitian.

Sendatu beite, bada,  
Euzkera lastana,  
Amatxuren altzuan,  
Ikasi nebana.  
Pozgarrizko berbeta,  
Maitetzen dodana,  
Bijotz minberatubak  
Sendatzen deustana.



Ekin, bada, euzkeraz,  
 Euzkotar maitiak,  
 Jarraitu dagiguzan  
 Asaben bidiak.  
 Erbestian eztagoz  
 Ekandu obiak,  
 Bake ta pozgarrizko  
 Zerutar legiak.

## ANDOLIN ETA KARMELE

Odai illunak ingurubetan,  
 Ona ez itxasgania,  
 Ikesbidera begira dago,  
 Andolin arrantzia.

### *Andolin*

Zer egingo dot, orain, Karmele,  
 Emaste neure maitia?  
 Itxasoratu arrainketara,  
 Edo apaldu eznia?

### *Karmele*

Ez, ez Andolin galbideratu;  
 Urrundu beti kaltia,  
 Atzeratuxu, senar kutuna,  
 Gaurko itxasoratia.  
 Ikusten dozu mendi ganian,  
 Odayen ibilketia,  
 Eta ganera, bildurgarrizko  
 Tayuban itxas-aldia?

### *Andolin*

Ikusten dodaz orrek guztiok,  
 Karmele neure maitia,  
 Baña, uste dot, joko dabela,  
 Laster itxasoratia.  
 Eta orduban, nai ete dozu,  
 Ni emen gelditutia?

### *Karmele*

Ementxe neugaz etxia zaintzen;  
 Apaldukogu eznia!



## PATXO TA KONTZE

### *Kontze*

Zer dakust, Patxo, naibagegarri,  
Or batelian?  
Arrain garau bat eztot ikusten,  
Begi aurrian!  
Nun egon zara, ene senarra,  
Itxas ganian?  
Eztago ezer aparitako,  
Etxe gurian!

### *Patxo*

Kontze, artuixu eruapena  
Bake-bakian,  
Aixe ta euri gogorak dira  
Itxas aldian.  
Eznesopa be, guztiz ona da  
Noizik-beñian,  
Zeinbat nai arrain ekarriko dot  
Itxas barian.

### *Kontze*

Arraintokitik urrin zabiltzaz  
Zu arraintzuban,  
Beste guztiak gelditzen dira  
Arrain lekuban;  
Billatu zuk be, bide obia  
Nundik dagan,  
Eta ekarri arraña beti  
Apal orduan.

### *Patxo*

Onik aurrera, Kontze maitia,  
Etorri neugaz  
Egunabarrez itxasoratzen,  
Guztiz arduraz.

Ekaitzak eta barealdijak,  
Bijok artubaz,  
Bixi geintek ez arrain ederrak  
Arrapatubaz.

### *Kontze*

Patxo, ni zugaz itxasoratu?  
Zure goguak!  
Eta nok egin etxeko lanak?  
Gure katubak?  
Zagoz ixillik, aitatu barik,  
Zeure asmuak,  
Beti daukadaz, etxe barruban,  
Nik arazuak.

### *Patxo*

Bijok batera egon ezkerro  
Itxasaldian,  
Arazorik ez, Kontze maitia,  
Etxe gurian.  
Akulakeri lotzabagiak  
Dozuz miñian,  
Ixiltxuago jarraituko zu  
Bide obian.



## SIMONEK MAITIARI

Neska eder bat ikusi neban  
 Elixara juanian,  
 Zerutar baten antz emon neutsan  
 Jarraitzen eban bidian.  
 Zer bait eroyan ixarrituten  
 Arpegi bardin-bagian,  
 Begijetatik guztiz aringo  
 Sartu yatan bijotzian.

O neska galant, zoragarrija,  
 Ederretarik, ederra!  
 Bijotz barruban lanian daukat  
 Maitetasunen su-garra.  
 Zu zara nire alaitasuna  
 Argitzen nabean ixarra,  
 Zu ikustera sarritxu nua  
 Elixearen aurrera.

Elix aurrian, zeure begira,  
 Ikusten nindusunian;  
 Benetan malte zindudazala,  
 Ezautu zendubanian,  
 Irribarrezka, agur egiñaz,  
 Elixan sartzen ziñian,  
 Eta orduban nire bijotza  
 Jarten zan zorijoniam.

Gero bein baten aurrez-aur bijok,  
 Giñan aurkitu *kalian*,  
 Zure ta nire arpegi bijak,  
 Ondo gorritu zirian.  
 An esan zeustan —ikusten zaitut,  
 Nik, Simon, eleix aurrian—  
 Erantzun neutsun— zagozalako  
 Ane, nire bijotzian.

Aurrerantzian ikusten giñan,  
 Or-emen *kale artian*,  
 Maitetasuna geitu ta geitu,  
 Ikustaldi bakotxian.  
 Zerubetako aingeru bat zan,  
 Nigaz batuten zanian,  
 Gogamenian sartuta neukan,  
 Egunaz eta gabian.

Bein baten berak agertu eustan,  
 Beraren maitetasuna,  
 Eta ganera, eskiñi gogoz,  
 Betiko zintzotasuna.  
 Au bai niretzat, Jaungoiko lastan,  
 Zorijoneko egunal  
 Pozez suturik neukan bijotza  
 Ai neure Ane, kutuna!

Ogibidian aldendu nintzan,  
 Itzaltzu itxasketara,  
 Negar-malkubak, agertzen ziran,  
 Gogotzu begijetara.  
 Aneri agur eginta gero,  
 Niñoyan urrunetara,  
 Guztiz bildurrez ta gogoratzen  
 iNoiz ikusikot osterala!

Ingurubetan itxas sakonak,  
 Goyetan ixartegija,  
 Zeru guztija biurtuten zan,  
 Ixpillu garbi-garbija.  
 Bere barruban ikusten neban,  
 Argiro Euzkelerrija,  
 Euskelerrijan, neska eder bat,  
 Anetxu maitagarrija.



Guztiz zintzuak ziran geroko,  
 Alkarren maitetasunak;  
 Etorri ziran alkartutera,  
 Bultza euzkuben egunak.  
 Ona gu orain, Ludi onetan,  
 Ezkonduriko lagunak,  
 Jainko lastanak dakarguzala,  
 Lanketa guztiz bigunak.

## EKIN EUZKERAZ

Munitibarko sasi artetik,  
 Aldenduriko txorija,  
 Zer gertatu yak bastertuteko  
 Eure berbeta garbija?  
 Aztu dok oso, eure erriko  
 Euzkera maitagarrija.  
 Nora jaurti dok euzkeltasuna  
 Ta eure jayoterrija?  
 Uste bagarik idoroko dok  
 Deungekerijen sarijal

Esan dagigun, orain ta beti,  
 Gora ta gora euzkera!  
 Eta guazan, geure izkera  
 Gogotzu sendatutera.  
 Zelayetara eruan daigun  
 Bultzaka zabaldutera;  
 Arlo orretan, atsedeen bage,  
 Jarraitu beti aurrera,  
 Euzkeratubak ixango diran  
 Errijai irakastera.



## TXOMIN ETA ERROSE

### *Errose*

—Txomin, astelenian  
ostuta basterrak,  
nora dozuz eruan  
zuk gure sagarrak?

### *Txomin*

—Zer diñozu Errose?  
nik zuben sagarrak?

### *Errose*

—Bai, Txomin, saldu dozuz,  
gorri ta ederrak.

### *Txomin*

—Urkiolan egon naz,  
egun ta erdijan,  
beste bat ibilgo zan  
zure sagastijan.

### *Errose*

—Zeuk eruan zenduzan  
araxe burdijan,  
eta saldu zenduzan  
ogerleko bijan.

### *Txomin*

—Nik ori? ze barraban!  
Olako asmurik!

### *Errose*

—Antxe saldu zeuntzazan;  
ez esan guzurrik,  
Arizpetar Tomasi  
gogotzu ta pozik;  
guzurra darijozu,  
Txomin, edonundik.

### *Txomin*

—Tomaxek saldu nau ni,  
Errose benetan!  
sagarrak erosita  
zer eukan zer esan?  
Ipiñi banituzan,  
zabal zabaletan,  
gozo jango genduzan,  
guk jatordubetan.

### *Errose*

—Baña Jauna daukagu,  
leku guztijetan,  
Berak jakin bagarik  
ezin lapurretan.  
Autortu dozu, Txomin,  
zeugaz zer jazo zan,  
betor diruba, kitu  
gelditu gaitezana.

### *Txomin*

—Ona emen Errose,  
ogerleko bijak,  
nire asmuak beti,  
dira galgarrijak.  
Onek dira edesti  
goguangerrijak,  
orain jarraituteko  
ekandu garbijak.



## AMATXU BIJOTZEKUA

Neure amaxu bijotzekua  
 Goguan zaukadazana  
 Urrunago ta indartzubago  
 Maitetzen zaitudazana.  
 Mozu gozo bat ezarritera  
 Nai neuke jua zugana;  
 Ilgo ete naz zugandik urrun  
 Ene amaxu lastana?

Ume nintzala, abesten zeuztan,  
 Zerutar baten antzera:  
 —Etorri zaitez ume lastana,  
 Amaren beso artera,  
 Beso ganiau ibilgo zaitut,  
 Batera eta bestera;  
 Luak artuta zagozaniau,  
 Sartuko gara ogera.

Gero mutiko andijagua  
 Niñoyan ikastetxera,  
 Ikastetxetik ortik-emetik,  
 Edonun jolastutera.  
 Eta amaxu maite-maitia,  
 Bildurrez ni billatzera,  
 Batiau atxak gogoz aztertzen,  
 Bestiau itxasertzera.

Erbesteratu nindubeniau,  
 Amabosgarren urtiau,  
 Gogoratuten egoten nintzan  
 Sarritan neure artiau:  
 Amaganako maitetasuau,  
 Zein indartzubak ziriau!  
 Guztiz lastanik neukan sartuta  
 Beti nik adimeniau.

O! Zein pozgarri, zoragarrija  
 Oraintxe gertatutia,  
 Zeru ederra, argi ta garbi,  
 Ixpillu biurtutia!  
 Nik ikusteko bere barrubau,  
 Amaxu maite-maitia;  
 Eta onela ibituteko,  
 Daukadan atsekabia.

Maite zaitut nik, Jaungoiko lastan,  
 Egillien egillia,  
 Apaltasuau nator zugana,  
 Egiteu eskabidia.  
 Maitetasunik zintzuenagaz,  
 Dot maite ama neuria;  
 Eta nai neuke arin beragaz  
 Batera aurkitutia.



## EGUZKIA

Ortzian zagoz,  
 Zeure lanetan,  
 Eguzki argi-argija;  
 Argitzen dozu,  
 Ikusbidian,  
 Daukagun ixartegija.  
 Orain agertu,  
 Gero estaldu,  
 Ibilte zoragarrija;  
 Eta onela,  
 Egun eta gau,  
 Juaku bixialdija.  
  
 Batian gorutz,  
 Bestian berutz,  
 Dakaz uda ta neguba,  
 Bitartietan  
 Udazkena, ta  
 Udabarri eztitzuba.  
 Eta onela,  
 Jarrantuten dau,  
 Betirauna dan lekuba,  
 Lan eder ori,  
 Ixan dalako,  
 Jaungoikuak aginduba.  
  
 Jarrai baketzu,  
 Geure eguzki,  
 Argi ta berogarrija;  
 Zu barik arin,  
 Amaitu leike,  
 Emeko bixialdija.  
 Oso leituta,  
 Ur eta legor,  
 Arrigarrijan Ludija;  
 Onela laster,  
 Ilgo litzake,  
 Bixirik dagon guztija.

Ikusten diran,  
 Ixarloketan,  
 Ixarsarta ta Illargijan,  
 Eguzki barik,  
 Jazoko yake,  
 Jazoten dana Ludijan.  
 Beti-betiko,  
 Illuntasuna,  
 Otz errimiak guztijan;  
 Ixango dira,  
 Gorputz biribil,  
 Itzalak ixartegijan.

Ixarrak dira,  
 Urrunetako  
 Eguzki guztiz argijak;  
 Toki aretan  
 Ixarlokaen  
 Argi ta berogarrijak.  
 Gure Eguzki  
 Ederra baño  
 Diranak guztiz andijak;  
 Andiera ta  
 Berotasunak,  
 Guretzat ixugarrijak.

Eguzki eder,  
 Berogarrija,  
 Zu barik galdubak gara;  
 Bidaldu guzu,  
 Len lez argija,  
 Ixarloka onetara.  
 Bixi diranen  
 Alaigarrija,  
 Ludi onetan zu zara;  
 Jaunak bidaldu  
 Zaizala beti  
 Orain lez zeure lanera.





## ILLARGIJA

Batian zorrotz  
 Guztiz adartzu,  
 Bestian obo betian;  
 Ikusten dogu,  
 Geugandik urre,  
 Jarraitzen ziar ortzian.  
 Argi makaltzu,  
 Illunabarraz,  
 Atsegintzuba gabian,  
 Dabil gogotzu,  
 Gelditu bage,  
 Ludi inguru guztian.

Guztiz gogotzu,  
 Maitatuba da,  
 Itxasgixonen artian,  
 Gau illunetan,  
 Itxasertzetan,  
 Bildurrez dabiltzanian.  
 Illargijaren,  
 Argi ederra,  
 Argitzen yatorkenian,  
 Galbidetatik,  
 Aldentzen ditu,  
 Jarririk bide onian.

Itxasertzetan,  
 Ikusten diran,  
 Itxas uts eta betiak;  
 Illargijagaz  
 Batera dabiltz  
 Gora-berako legiak.  
 Arritzen gaitu,  
 Siñisgaitza dan,

Olako lan egitiak;  
 Illargija ta  
 Ludi guria  
 Alkarturik ibiltiak.

Urre dago ta,  
 Ikusten yakoz,  
 Toki illun ta garbijak;  
 Betaurriakaz  
 Agiri diran  
 Garmendi arrigarriak;  
 Illun dagozan  
 Sakonuniak  
 Puzkaturiko mendijak;  
 Jaunak zeatu  
 Ebalan noizbait  
 Agiri dan Illargijak.



## ALLIXARRAK

Sarta laburraz  
 Agertzen dira  
 Allixar banakatubak,  
 Urreratubaz  
 Luzetzen yakez  
 Sarta guztiz argitzubak.  
 Ikaraturik  
 Ibilten gara  
 Neketzen geure burubak,  
 Zein gaiztokeri  
 Ete dakarren  
 Ludira urreratubak.

Ixugarrizko  
 Ibilketakaz  
 Jarraitzen euren bidian,  
 Ikusten doguz  
 Dabiltzazala  
 Ixar askoen artian.  
 Siñisgaitz diran  
 Ostereakaz  
 Ezer jo barik ortzian,  
 Jarraitzen dabe  
 Eguzkijaren  
 Inguru-obo guztian.

Urte askotan  
 Ibilten dira  
 Ixartegijan barruban,  
 Ariñeketan  
 Ara ta ona  
 Azkenbageko lekuban.  
 Zer da Ludija,  
 Ixar, Eguzki,

Guk dakuzkuna *munduan?*

Ortze puzka bat  
 Dakuzku emen  
 Ludijaren inguruban!

O ixartegi  
 Amaibageko,  
 Guretzat miragarrija!  
 Jaungoikuaren  
 Lan guztijak lez  
 Au dala bai mirarija!  
 Zerubargijak  
 Ibilli arren  
 Ibilte bildurgarrija,  
 Alkar jotera  
 Ez egiteko  
 Ixan zan erabagija.



## SARDIÑA SALTZALLIA

Oñutzik eta magalak gora,  
 Buruban otar andijak,  
     Sardin-saltzallak  
     Ixaten dabez  
 Azkar dabiltsan aldijak.  
 Tayu orretan ikusten dabez,  
 Ingurubetan errijak,  
     Gogotzu deika  
     Diardubela  
 —*Sardiña bixi-bixijak!*

Eztauz bildurtzen ekaitz gogorak,  
 Aixiak eta eurijak,  
     Aurrera duaz  
     Bizkor jarraitzen  
 Zelai ta mendi guztijak.  
 Sarri-sarritan egiten dabez  
 Ibilte gaixogarriak,  
     Baña alaitzu  
     Deituten dabe  
 —*Sardiña guztiz andijak!*

—Entzuixu, Juste, sardin-saltzalle,  
 Zegan dozu oraingua?  
     —Eder-ederra,  
     Josepa-Karmen,  
 Oraintxe arrapatua.  
 Bi txakurrian guztiz merke da,  
 Esan leike dubakua,  
     Artuixu arin,  
     Amaituko da,  
 Aringo otzarakua.

O emakume errukigarri,  
 Orrek dira lan gogorak!  
     Txakurtxu batzuk  
     Irabasteko  
 Naibage guztiz okerrak.  
 Baña nekiai jaramon bage,  
 Jarraitzen dozuz basterrak,  
     Deika ta deika  
     Diarduzula  
 —*Sardiña eder-ederrak!*



## POZEZ ETXERATUBAK

*(«Jayoterrri Maitia»n)*

Agur maite doguzan aitamatxuak,  
Aide guztijak eta geure auzuak;  
Alaigarrijak  
Daukaz negarrez gure begijak;  
Toki onetan,  
Mendi ta baso zugaztubetan;  
Zorijonian,  
Ona emen gu bake-bakian,  
Bijotzetako erri maitian.

Agur Ardibasoko ardi-tokija,  
Geure bijotzetako zoragarrija;  
Zeugandu gara,  
Erririk lastanena zeu zara;  
Ludi onetan,  
Beti zagoz gure bijotzetan;  
Maitagarrija,  
Amesetako jayoterrija  
Asabaen gomutagarrija.

Urriñ ibilli arren geure lanetan,  
Euskalerrija geunkan guk bijotzetan.  
Zein pozgarrija!  
Ikusten gagoz geure errija;  
Etxe ta mendi,  
Mendijetako ainbeste ardi;  
Zelai ederrak,  
Eta erreka garden-gardenak,  
Bijotza pozez jarten dabenak.

Agur Tontormotz eta beste mendijak,  
Zeuben begira dagoz gure begijak.  
Asaberrijan,  
Gomuta ixan dogun tokijan;  
Atsegingarri,  
Ardijak dakuzkuz ain ugari;  
Zein gogargija!  
Zorijoneko jayoterrija,  
Zuretzat dogu geure bixija.



## AGUR AURETXU

### *Batxi*

Urrinetara aldentzen zara,  
Auretxu bijotzekua,  
Beti goguan zaukadazala,  
Galdurik daukat buruba.  
Nora zaruez, ixar ederra?  
Zein zeure bixilekuba?  
Zure argija estaltzen bayat  
Illunduko yat *munduba*.

### *Auretxu*

Bai, neure Batxi, maite-maitia,  
Laster atzerrira nua,  
Egin biar dot makur-makurrik,  
Gurazuen agindua.  
Batxi, zu zara niretzat beti,  
Gixaseme maitatua,  
Eta edonun ixango zaitut  
Sarritxu gomutatua.

### *Batxi*

Argitzen nabem ixar ederra,  
Estaldurik dagonian,  
Zelan, maitia, bixi neiteke,  
Emen illuntasunian?  
Bijotzillagaz eta artega,  
Betiko naibagepian;  
Agur Auretxu, otzak ilgo nau  
Emetik zuazanian!

### *Auretxu*

O Batxi, Batxi, naibagetuba,  
Orrek dira gogamenak!  
Noizbait aringo biurtzen dira,  
Atzerrira duazanak!

Baketu, bada, eruapenez,  
Zeure artegatasunak,  
Jainko lastanak ekarrikozku,  
Geuk nai doguzan egunak.

### *Batxi*

Jaungoikuazko itxaropena,  
Beti guztiz eztitzua,  
Ibituten dauz estutasunak,  
Baketuten dau gogua.  
Baña, Auretxu, zuazanian,  
Ai! neure bijotzekua!  
Zeu aldenduaz eruango dot,  
Bixitza naibagetzua.

### *Auretxu*

Jaurti aldera gogamen txarrak,  
Sendatu itxaropena,  
Zugaz ta nigaz gertatuko da,  
Jaungoikuak nai dabena.  
Maitatu alkar zintzotasunaz,  
Arturik eruapena,  
Goiz edo belu batuko gaituz,  
Jaungoikok alkarregana.



## MAITETASUN GALDUBAK

*Ane*

Nora zatoz zu, Kastor,  
Gure atartera?

*Kastor*

Agerraldijaz, Ane,  
Ni zeu ikustera.

*Ane*

Eztakit egija dan;  
Zu ni ikustera?  
Guzurra ixango da  
Egijen antzera!

*Kastor*

Ezin dot nik ulertu,  
Zuk diñostasuna,  
Guzurra nik zegaitik,  
Anetxu kutuna?  
Aldatu ete dozu,  
Zuk zintzotasuna?  
Esaidazu argiro  
Zer dan gurozuna!

*Ane*

Ondo ulertzen dozu,  
Entzuten dozuna,  
Beste bat ei da orain,  
Zuretzat kutuna.  
Zetan zatoz zu ona,  
Maite ederduna,  
Solo bat gora-bera,  
Ni itxi nozuna?

*Kastor*

Arriturik naukazu,  
Anetxu maitia,

Ni naz gauza orretan,  
Errurik bagia.  
Nik itxi zaitudala  
Zuk siñistutia,  
Da maitetasuntxuak  
Atzeratutia.

*Ane*

Zure aitama onak  
Esan dabe ortik,  
Aurele begi-eder  
Nai dabela gaurtik.  
Ni baño galantago  
Dalako batetik,  
Solotxu bat geyago  
Dabela bestetik.

*Kastor*

O zein deungiak dira  
Emen guzurtijak!  
Orrek niretzat dira  
Albista barrijak.  
Ez nigana ekarri  
Asmo mingarrijak,  
Nire zintzotasunak  
Ixanik garbijak.

*Ane*

Zure zintzotasunak,  
Dirala garbijak?  
Baña, eder-ederrak,  
Neska aren begijak.  
Bai, Kastor, orrek dira,  
Akulakerijak,  
Leunketa asko, eta  
Guzurrak erdijak.

*Kastor*

Agur, agur ta agur,  
 Ane maitatua,  
 Zeure maitetasunak  
 Oso bastertua.  
 Zeugaz ixan daixula,  
 Beti Jaungoikua,  
 Zorijona Ludijan,  
 Ta gero zerua.

*Ane*

Agur, agur, zeuri be,  
 Kastor maitatua,  
 Zeure zintzotasuna,  
 Ondo agertua.  
 Aurelek puzkatu deust  
 Bijotz neketua,  
 Agur; ixan daixula,  
 Lagun Jaungoikua.

## ZAPATARIJAK (OSKIGILLIAK)

*Simon*

—Kaixio, Dari, *zapatarija*,  
 Arrikatza eruatzen?

*Dari*

—Kaixio, Simon,  
 Ondo etorri,  
 Etxeraldija egiten?  
 Nora ixan az  
 Aspalditxuon?  
 Erri andijak ikusten?

*Simon*

—Bilbon egon nok,  
 Urtebetian,  
*Zapatagintzan* ikasten,

*Dari*

—*Zapatagintzan?* errukarrija!  
 Ona ni *zapatarija*;  
 Arrikatzagaz,  
 Gora ta bera,  
 Irabasteko ogija.  
 Emen etxagok  
 Zapata lanik;  
 Guretzat urrikerija,  
 Alogerian  
 Ortik-emetik,  
 Dok gure bixialdija.

*Simon*

—Ori dok Dari, niretzat beintzat,  
 Albista bildurgarrija!

*Dari*

—Eta ori dok,  
 Adiskidia,



Ao-beteko egija.

*Zapatagille*

Bakar batentzat

Lanik eztagon errija;

Sei gayagozak,

*Zapatagintzan,*

Irabasteko ogija.

*Simon*

—Zek dakaz, Dari, urrikerira,

*Zapatagintzako* lanak?

*Dari*

—*Abarketatxu*

Polit-politak

Guztiz merkiak ixanak.

*Abarketakaz*

Salerostera,

Oraintzu etorri danak,

Ondatu ditu

*Zapatarijen*

Irabasbide onenak.

*Zapatak* orain, jantziten dira

Elixirako, jayetan.

Amaika bidar

Alogerian

Egingo dok atxurketan!

Eta nik legez

Ikatz zorruak

Iragon gogoz lanetan!

*Simon*

—Dari, ni enok

Iñoiz ibilli,

Olako lan gogorretan.

*Dari*

—Ori jakiñik, eztok nayago

*Abarketak* egitia?

*Simon*

—Orixe yaukat

Gogamenian

Sartuta adiskidia.

*Dari*

—Ikasik bada,

Orretarako,

Okena dan lanketia,

Eta urijan

Idoroko dok

Baketzu ogibidia.





## AU NAIBAGIA!

Urte askotan aurkitu nintzan  
 Atzerrijetan lanian,  
 Amatxu neukan aldendu barik,  
 Nik beti gogamenian.  
 Geitu gurarik diru apurrak,  
 Jarri naitian bidian,  
 Eta amatxu ikusi daidan,  
 Bixirik dagon artian.

Etorri nintzan, diru apur bat  
 Aurreratu nebanian,  
 Guztiz *kantari*, txorijak legez,  
 Alaitzu bide guztian.  
 Uste nebala laster amagaz  
 Aurkitu zorijonian,  
 Antxiñatxuko jolaslekuban  
 Ta neure jayotetxian.

Neure errira, guztiz alaitzu,  
 Urreratu nintzanian,  
 Illeta itzal-itzal bat joyan  
 Obietara bidian.  
 —Nor da il dana? —gizon bateri  
 Nik itandu neutzanien,  
 Arritu nintzan, neure amatxu  
 Zala jakin nebanian.

Negarra gogoz darijodala,  
 Eta txapela eskuban,  
 Jarraitu neban obietara,  
 Neure amaren onduan.  
 Bijotzillagaz guztiz artega  
 Negar ta negar nenguan,  
 Orduban lako atsekaberik  
 Eneban ixan *munduan*.

Neure Jaungoiko bijotzekua,  
 Au da, bai, bakartasuna,  
 Juan dedilla zerubetara,  
 Amatxu neure kutuna.  
 Nire pozgarri argi-argijak,  
 Billatu dabe illuna,  
 Au da naibage mingarrija, ta  
 Itzalaldi betiraunal

Obietako illobi baten,  
 Sartzera juazanian,  
 Mozu zintzo bat ezarri neutzan,  
 Agur! agur! egitian.  
 Jainko lastanak jarri ninduban,  
 Etxeratzeko bidian,  
 Mozu gogotzu bat ezarteko,  
 Sartu orduko lurpian.



## UGAZABANDRIA TA NESKAMIA

### *Ugazabandria*

Zer egin don, Illare,  
 Enparantza aurrian,  
 Berbetan Urbanegaz  
 Beti ekiñian?  
 Etxeko lan guztijak  
 Aztuta goixian,  
 Beti dotan zortzirak  
 I atorrenian.

Erosketea egin,  
 Ta gero etxera,  
 Berbetan Urbanegaz,  
 Gogotzu ostera.  
 Astiro *kalieta*,  
 Batera bestera,  
 Sukaldeko ardurak  
 Itxaron dayela.

Olan uste ete don  
 Jarraitu gurian,  
 Ain ardura gitxigaz,  
 Eure egipidian?  
 Ez Illare, olan ez,  
 Ez gure menpian,  
 Olan jarraitzen badon  
 Laster az *kalian*.

### *Neskamia*

Agirakari zagoz,  
 Ugazabandria;  
 Noiz ikusiko dot ba,  
 Senargei maitia?  
 Goixetan ixan ezik,  
 Noiz da ikustia?  
 Sukaldian daruat  
 Eguna guztia.

### *Ugazabandria*

Zer? Baskal ordurarte  
 Abil *kalieta*,  
 Urdai billa dendara  
 Bederatzijetan;  
 Gatzik eztagola-ta,  
 Amar-amarretan,  
 Urban ikustiarren  
 Beti asmuetan.

Erosketan goixian,  
 Ordu laurenian  
 Egon adi maitiaz,  
 Berbeta onian.  
 Orix eisten donat,  
 Nik aurrerantzian,  
 Ez asmurik ekarri,  
 Gagozan bakian.



## JULETXU

Zeure betiko bizkortasunaz,  
 Jolastutia goguan,  
 Txorija legez ikusten ziñan,  
 Jolastuteko lekuban.  
 Ixarrak baño begirakune,  
 Argijagua zenduban,  
 Maite ta pozez zeunkazan beti,  
 Aititak bere onduan.

Lorategiko lora ederra,  
 Zeure gaztetasunian,  
 Juaten ziñan ikastetxera  
 Goiz eta arratzaldian.  
 Bed alaitzu, beti saltoka,  
 Beti gogaldi onian,  
 Aitita pozik, zengozanian  
 Bere begijen aurrian.

Zu baño argi alayagorik  
 Etzan ixarren artian,  
 Aingerutxu bat dirudixula,  
 Zeure galantasunian.  
 Zoragarrizko loba lastana,  
 Aititaren bijotzian,  
 Atsegingarri ixaten ziñan  
 Ikusten zenduzanian.

Zer jazo yatzun ogeratzeko,  
 Amabigarren urtian,  
 Jolasaldijak atzeratuta,  
 Adiñik bizkorrenian?  
 O geixo deunge bildurgarrija  
 Sartu yatzun gorputzian,  
 Ardurak eta osagarrijak,  
 Oso alperrik zirian!

Artegatasun indartzubagaz,  
 Jaurti jaten zendubana,  
 Aztu zenduban jolastutia,  
 Beti goguan zeunkana.  
 Guztijak gogoz juaten ziran  
 Ardurak artzen zugana,  
 Naibageturik ikusten eben  
 Itzaltzen ziñoyazala.

O loba lastan, bijotzekua,  
 Egun batetik bestera  
 Aldatu ziñan osasunetik,  
 Guztiz aringo iltera.  
 Ume ziñala, Jaungoikuaren  
 Aginduba egitera,  
 Jarraituteko, *pekatu* barik,  
 Emetik zerubetara.



## EMASTIAK SENAR MOZKORTUBARI

Senar maitia, zakuztaz  
Etzanta luze lurrian,  
Ondamengarri etxian;  
    Adimen barik,  
    Lotza bagarik,  
Ardau asko urdallian,  
Mozkorra beti aldian,  
Eta ni naibagepian.

Beti ni gogoratuten  
Zelan bixiko garian  
Arantza askoko bidian;  
    Urdallak utzik  
    Eta billoixik  
Urrikerijen artian;  
Negarrez eta lanian,  
Bixitza bake bagian.

Ume lastanak eta ni  
Oso gagoz makaldurik,  
Gozez ta otzez galdurik;  
    Osategira,  
    Beti begira  
Senarragaz arriturik;  
Bada, mozkorrak arturik,  
Gitxi dakazku dirurik.

Olan jarraitu ezker  
Il biar gaitu goziak,  
Geitubaz atsekabiak.  
    Au naibagia,  
    Senar maitia!  
Dakazku mozkortutiak.  
Artu ekandu obiak  
Aldatubagaz bidiak.

Mozkorraldijak sarritan  
Dakargu erijotzia,  
Edo arin ondatzia,  
    Minberaturik,  
    Indargaturik,  
Bijotzaren ibiltia;  
Eta mozkorrak artzia  
Ixa oi da galbidia.

Iturriko ur garbija  
Da edaririk onena  
Eta osasuntzubena,  
    Senzun argija,  
    Gutziz garbija,  
Guganatuten dabena.  
Edan, bada, ur gardena  
Zorijona dakarrena.



## IKASBIDIAK

*(«Jasetxo»n)*

Azkar ta zintzo bixibidian,  
 Biar genduke jarraitu;  
 Alaitasunaz etxealdlan,  
 Illuntasunak argitu.  
 Ardurapian ekiñalian,  
 Basterrak ondo garbitu;  
 Baketzu eta lege onian,  
 Maitetasunak betetu;  
 Onbiderako geure lanian,  
 Ez iñoiz bere gogaitu.

Andikerijak ondamengarri,  
 Ixaten dira etxian;  
 Gorrotua ta deungekerijak,  
 Osasunaren kaltian;  
 Egipideko arazotxuak,  
 Egiñik bake-bakian,  
 Apoltasunaz jarraitzen bogu,  
 Errukiorren bidian,  
 Zerutarrak lez, bixiko gara,  
 Guztizko zorijonian.

AZKENA